

KANALAK

Kanalen barnenan, hiru alderdi bereizten dira: *komunikaziokanalak*, *banaketa - kanalak* eta *salmenta - kanalak*.

- Bezeroekiko komunikazioa: Internet, sare sozialak eta iragarki publizitarioak izango dira bezeroekin harremanetan jartzeko komunikazio kanal egokienak. Bizikleten berrikuntzak erakusteko eta bezeroei komunikatzeko Instagram eta Tik Tok sare sozialak erabiliko ditugu. Iragarki publizitarioen bidez, aldiz, ofertak eta urtaro bakoitzean egokienak diren bizkleta espezifikoen berri emango dugu.



- Produktu eta/edo zerbitzuen banaketa: Gure bezeroak erositako produktuak enpresa duen furgonetaren bidez helaraziko diegu. Bidalketak 48-72 ordu bitartekoak izango dira, baina arazoak egotekotan gerta daiteke egun bat edo bi atzeratzea. Furgonetaren edukiera bost sei bizikleta sartzekoa izango da. Bakarrik Iberiar Penintsula barruan izango dira bidalketak, beste herrialde batera bidaltzeko aukera oraindik ez dugu izango, baina gure helburuen barruan dago. Orain bat izanez gero denda fisikora joan beharko da produktua erosteko.



- Produktu eta/edo zerbitzuen salmenta: Gure produktuak saltzeko denda fisikoa izango dugu eta gurekin akordioa duten dendetan produktuak ere salmentan egongo dira. Denda online bat ere izango dugu eta telefono dei baten bidez ere erosi ahal izango dira, bai dendan jasotzeko bai etxera eskaera eramateko.

